

## JESUS ETA APOSTOLUAK JETSEMANIN

1

Nork ez daki zer jazo  
zan behin Jetsemanin?  
Hara joan zan Jesus  
nekez baina arin.  
Gogoan larri eukan  
ta bihotzean min,  
Aitaren nahia zer dan  
gura leuke jakin.  
Otoizlekura doa  
apostoluakin.

3

Ezin neurtu Jesusen  
nahigabe larria,  
baina biziagoa  
daukan egarria:  
"Aita, ondo dakizu  
Zuk nire barria,  
zure nahia da nire  
bizi-oinarria;  
bete dedila nigan,  
o Aita maitagarria!

5

"Mutilok, lo zagoze?  
Pedro, zu be lotan?  
Ezin irauan Nirekin  
une larri hontan?  
Jagi ta otoitz egin  
gogoz ta askotan,  
gizona berez makal,  
haundia asmotan...  
Otoi egin behar da  
sendo irautekotan".

2

Jesusek hemen hasten  
dau burruka latza,  
nahigabez lurra jota  
ahuzpeztuta datza.  
Edan nahi ta ezin  
kaliza garratza,  
ahal bada, ken deiola  
Aitari dirautsa;  
larriz odol ta guzti  
ze izerdipatsa!

4

Behinolako Jesus ha  
hain gizon abila,  
Jetsemanin dakusgu  
jota erdi hila.  
Apostoluengana  
doa lagun bila,  
orduan bete jakon  
barruko nahaspila:  
lagunak lozorroan  
ta Aita isila.

6

Jesusek otoitzean  
iraun dau luzero,  
hantxe burrukarako  
sentitzen da bero:  
"Jagi, goazen, ordua  
dogu honezkero,  
hor datoz Ni lotzera  
Judas ta borrero,  
urten daigun bidera,  
ez ihesi, gero!"